

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ERRIBERABEITIKO UDALA

Behin betiko onespena ematea Ribabellosako R02/UE2 egikaritze unitateko urbanizazio proiektuari

Alkatetzaren 2021eko martxoaren 29ko 81/2021 ebazpenaren bidez, hasierako onespena eman zitzaion Ribabellosako R02/UE2 egikaritze unitatearen urbanizazio proiektuari. Hogei eguneko informazio izapidea egin zen, iragarkia ALHAOn (46. zenbakia, 2021eko apirilaren 30ekoa) argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, eta 2021eko martxoaren 31ko El Correo egunkarian ere argitaratu zen. Udal honetako iragarki taulan jendaurrean egon da, interesdunei entzunaldiko izapidea egin zaie, eta espedientean jasota dago epe horretan ez dela alegaziorik aurkeztu.

Alkatetzaren ekainaren 24ko 178/2021 Dekretuaren bidez, behin betiko onetsi da Ribabellosako R02/UE2 egikaritze unitateko urbanizazio proiektua.

Argitaratu egiten da, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 2/2006 Legeak, 194.2 artikuluan xedatutakoa betez.

Ribabellosa, 2021eko uztailaren 12a

Alkatea

MIREN SANTAMARÍA MARTÍNEZ